

Simulakroak:

Donostiako Irakasleen Unibertsitate

Eskolako hainbat esperientzia

Ainhoa Ezeiza eta Javier Encina

Kultura herrikoien iragankortasunetik ikasiz (konplexutasunaren hiru oinarrizko kontzeptuak ondo biltzen baititu: inperfekzioa, osagabetasuna eta ziurgabetasuna), eta Andaluzian eta Morelosen (Mexikon) landu dugun simulakroaren kontzeptua garatuz, proposamen horiek unibertsitateko klaseetara moldatu ditugu.

Nola landu bizikidetza eraikitzen lagunduko digun partaidetza unibertsitatean? Gure proposamena izan da simulakroak lantzea, egiturak eta lurraldeak malgutzeko eta elkarrekin identifikazioen bidez topatzeko. Simulakroek biziraunarazten laguntzen digute, esperientzia ezberdinak sentitu/pentsatu/egiteari «uko ez egiten». Ukapen hauen «birusa» gizartean sartzen denean, erreproduzitzea errazten dute, baina ez du esan nahi irekita dagoela, baizik eta «ez dagoela paralizatuta», esperientzia hori grabatuta geratzen da hurrengo baterako, baina berez ez du ezer egingo ez bada kutsatzen... Ezinezkoaren itxaropenerantz irekitzen dute.

Simulakroek “fikzioaren eta errealitatearen arteko mugen disoluzioa suposatzen dute, (...) alegia, bizipenak jakintza afektibo eta esperientzia bilakatzeko aukerak dira, (...) *esaten ez denaren* kontakizuna eskaintzen dute; *hitz egiten ez den* horrena” Rocío GÓMEZ ZÚÑIGA eta Julián GONZÁLEZ MINA (2003:4-5). Bizipen horiek dira bestelako harreman-moduak, bestelako

bizimoduak posible direla erakusten digutenak. Iragankortasunean, efimeroan, ezustekoan, unekoan, partekatutakoan, espazioak eta denborak zabaltzen goaz, itotzen gaituen lurralde/ordutegi egitura batean.

Nola egingo dugu? galderari erantzuteko, nola egin lan jendearekin eta jendearengandik hain lurralde hierarkikoan –estamentalak, berez–, dena hain neurtua dagoen lurralde batean, Zientzia (maiuskulaz) jendearen gainean erortzen den harlausa den lekuan, gure erantzuna da: *eginez!!!*, bizitza sortuz, partaide-tza edo autogestio prozesuak ez badira ere, bizitzen laguntzen diguten moduak sortuz, gauzak dauden bezala onartu ordez, haustura, erresistentzia moduak erabiliz, harreman-moduak edukien gainera jarritik eta kontraesanak sortuz, horrela konturatzeko gara Botereak gidatzen gaituela eta geuk ere utzi egiten diogula Botereari gu gidatzen eta bitartekaritza sozial desiratuak sortzeko modu asko dagoela ere ohartzen gara, iraultzaren zain egon gabe, Etorkizunaren esperoan egon gabe.

Simulakroak baino ez direnez, eguneroko bizitzaren eraldaketarantzko jarraipena jendearen erabakimenean geratzen da, ez irakaslearen inposizio gisa; irakaslearen zeregin nagusia da jendea ez blokeatzea, eraikitze kolektiboa dinamizatzea eta prozesuak konplexutzea, baina ez jendeak zer egin behar duen erabakitzea, jendearen izenean erabakitzea «jendearen onerako» aitzakiaz.

Esperientzien testuingurua

2014an hasi ginen jabe-gabetzea eta ilusionismo soziala lantzen Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan (Euskal Herriko Unibertsitatean), urte hartan kontraesan asko izan genituen, aldaketarako erresistentziak eta larritasun sentazioa ziurgabetasunaren aurrean. *A priori* zehaztutako helbururik gabe lan egitea izan da zailena: kontrola, diseinua, programazioa eta antzekoak

alde batera utzi eta ikasleekin eta ikasleengandik lan egiteak esan nahi du badakizula nola hasi baina ez zer gertatuko den. Kontua ez da «denak balio duela», ez da hala, baina gertatzen denaren arabera joan behar da konplexutasuna, sakontasuna, partaidetza eta eraikitze kolektiboa lantzen, horregatik ez dago jakiterik zer gertatuko den. Halaber, esan nahi du ez dagoela bukaerarik, edo ez zaizkiela ikasleei konklusioak eman behar, «begira, nahi duzuna egin dezakezu baina azkenean hau, hori eta hura pentsatu/jakin behar duzu» (debateak manipulaturik beti zure gaiak ateratzeko, zure ikuspegiak nagusitzeko, partaidetza faltsuan). Kontua irekitzean dago, irekitzeko irekitzean (bigarren mailako dialektikan), ireki eta gauzak gerta daitezten uztea, eta hortik aurrera, indibidualismo menderatzailea apurtu eta elkarrekin lan egitea, elkarri lagunduz eta elkarrekin eraikiz.

Kolektiboki lan eginez, irakasle-ikasle dualtasuna apurtzen da; irakaskuntzaren modu indibidualisten aldean, irakaslea ikasgelan ez dago «bakarririk, ikasleen aurrean», honela lan egiten denean irakaslea beti dago ikasleekin lanean, eta ikasleek ere elkar zaintzen dute, disentsuan. Pertsona batzuek afinitate gehiago dituzte, sentiberagoak dira eta konturatzen dira garrantzitsua dela ikaskideekin eta ikaskideengandik lan egitea; beste batzuei gehiago kostatzen zaie horrela lan egitea, zenbaiten ustez denbora galtze hutsa da –besteak beste, ez dutelako ulertzen zer egiten ari garen, baina gehienetan erosoagoa iruditzen zaielako irakasleak agintzea eta aginduak betetzea, besterik gabe; edo nahiago dutelako «egingo balute bezala egitea»; edo eduki batzuk buruz ikasteak segurtasuna ematen dietelako, errepikapen errepikatzailean oinarritzen den azterketa bati aurre egiteko–, eta hainbat erresistentzia gainditu behar dira indibidualismoan arrakalak irekitzeko. Baina, oro har, irudimenez, sormenez, alaitasunez lan egiten ikasten ari gara, mugituz, aulkian aurrera be-

gira eserita egoteak eragiten duen esklerotizazioa gainditzeko – hori gorputza kontrolatzeko modu bat baino ez da, Sistema ez da asetzen soilik buruak kontrolatzearekin–, eta klaseak ez dira ezinbestez ikasgelan gauzatzen, kolorea dute, musika, ahotsa... eta baita ere frustrazioa, debatea eta tentsioa, disentsu handia eta, aldi berean, elkarlan eta elkarlaguntza nabarmena.

Lehen Hezkuntzako graduko hiru irakasgaitan aritu gara lanean orain arte:

- Lehen mailako irakasgai batean: *Komunikazio gaitasunaren garapena I*. Irakasgai honetan, ikasleek ikasi behar dute nola komunikatzen den unibertsitatean, euskaraz eta gaztelaniaz. Erabili dugun oinarrizko materiala *El Desempoderamiento*, liburuxka izan da (Javier ENCINA eta M^a Ángeles ÁVILA, 2015), eta saiatzeko gara jabe-gabetzearen zutabeei sakontasuna eta zabalera ematen, ikasgelan harreman-moduak eta eraikitze kolektiboa lantzeko aitzaki tresna gisa. Irailetik abendura bitartean gauzatzen da, 25 ordutan gutxi gorabehera.
- Hirugarren mailako irakasgai batean: *Hizkuntzaren Didaktika*, hizkuntzak eskolan nola landu ikasteko irakasgaia. Hezkuntzaren eta hizkuntzaren jabe-gabetzea lantzen dugu ilusionismo sozialaren printzipioetatik abiatuz, eta prozesuan zehar erabakitzen ditugun proiektuak egiten ditugu, disentsuan. Hausnarketa teorikoak proiektuekin elkarlotzen doaz, eta horrela teoria eta praktika ez dira banantzen eta ez sekuentziatzen; egiten dugunari sakontasuna ematen diogu pentsatzeak, sentitzeak eta egiteak bateratuz. Irakasgaia 50 ordutan gauzatzen da, irailtik azaroaren erdialdera arte.
- Laugarren mailako irakasgai batean: *Hizkuntza eta Teknologia: Baliabideak*. Irakasgai honetan bizikidetzaren, teknologia eta jabe-gabetzea dira gure hausnarguneak, eta ikasketetan zehar

ikasitako gauzak berrikusten ditugu eskolak gizartean betetzen dituen zereginak sakonago ulertzeko eta maisu-maistra gisa izan nahi dugun ikuspegia lantzeko. 60 orduko irakasgai bat da, irailetik azaroaren erdira eta martxo-apirilean (tartean praktikaldia dute ikastetxeetan).

Simulakroa lehen mailan: Jabe-gabetzea lantzen pentsatuz, sentituz eta eginez

Prozedura zientifikoaren estandarizazioak eta komunikatzeko moduek perfekzioa bilatzen dute, kaosaren ordena eta ekoizpen zientifikoaren kontrola. Perfekzioaren bilatze horrek ezagutza zatikatua eragiten du, izan ere, soilik zatikatzen denean iker daiteke tresna estandarizatuak (edo estandarizagarriak) erabiliz. Horrek guztiak eragiten du emaitzak zalantzaezinak izatea, hain zatikatuak egonda, soilik zatitxo bakoitzean zientifikoki prestigiosotzat jotako pertsona zehatz batzuek baieztatu, ezetsi edo alda ditzakete hain eremu txikiko printzipioak, eta hori, noski, eremu horretako adituek onartutako ikergailuak erabiliz; horrek oso zaila egiten du kritika zientifikoa. Gainera, nor hartzen da aditu zientifikotzat? Horren neurgailuak ere oso zalantzarriak dira: «inpaktuko» argitalpen kopurua, finantza eta giza-baliabideak eskuratzeko gaitasuna... Azken urteotan, gainera, kezka ikusi dugu nola bereganatu dituzten aldizkari akademiko-zientifikoak multinazional handiek, diru publikoarekin egindako ikerketen emaitzak pribatizatuz eta sarbidea eragotziz.

Planteamendu ideologiko horiek zalantzan jarri gabe¹, unibertsitateko ikasleak txosten eta artikuluko akademiko-zientifikoak idazten trebatzen ditugu idazkera berezi horren betekizun formaletan entrenamendua jasoz. *Hemen honela idazten da.* Irakasgai honen helburua da idazkera zientifikoaren protokoloak

1 Sakontzeko, ikus. Ainhoa EZEIZA eta Javier ENCINA (2017).

betetzea, diskurtso zientifikoaren hezurdura ezagutu eta errepi-
katzen trebatzea, kalitate-arau formalak betez (aipu eta errefe-
rentzia moduak), «zer esanik» eduki aurretik. Ezagunak dira
irakasteko ikuspegi honen ondorioak: testuak perfektuak izango
dira akaso, baina askotan azaleko ulermenean oinarritzen diren
kopiaitsatsi hutsak izaten dira; diskurtsoa modu akritikoan bar-
neratzen da eta ikaslearen ahotsa desagertu egiten da.

Pierre BOURDIEUk *mitologia zientifikoa* deitu zion honi
(1985:152-153): “*koherentziaren bi printzipio nahasirik* daude,
batera: aldarrikatutako koherentzia, itxuraz zientifikoa, zientifi-
zitatearen kanpo-zeinu ugariz betea, eta ezkutuko koherentzia,
printzipioz mitikoa. Joko bikoitz hau eta ulerkortasun bikoitz
hau duen diskurtsoak eraginkortasun soziala izateko arrazoia
hau da: zientziaren aroan, arazo sozialki garrantzitsu bati eran-
tzun bakarra eta osoa emateko joera inkontzientea, mitoak edo
erlijioak egiten duen modura, pentsamendu edo adierazpide
zientifikoak jasoz asebeste daitekeela soilik”.

Asimilazio hau gerta ez dadin eta Akademiaren inguruan ikus-
pegi kritikoa sustatzeko, gure proposamena izan da edonork
zeresanik duen kontzeptuetatik abiatzea, bizipenak dituztelako
kontzeptu horien inguruan eta horrela, nor bere hitzetatik, bere
esateko moduetatik, bere oroitzapen eta sentipenetatik abia
daiteke, mundu teoriko-zientifikoan modu horizontalagoan
barneratzeko. Horregatik pentsatu genuen ideia ona izan zite-
keela jabe-gabetzearen zutabeak lantzea, zutabe gehienak egune-
roko bizitzako «hitzak» direlako: zaintzak, askatasuna, eraikitze
kolektiboa, konfiantza, autonomia eta elkarren beharra, alaitasu-
na, desazkundera eta itxaropena. Abiapuntua jakintza indibidual,
familiarreko eta herrikoia dira, eta taldeka lan eginez, jakintza
horiek guztiak ezagutza zientifikoarekin elkarlotzen dira, eta

taldekako berreraikuntza horretatik eraikitze kolektiborantz jotzeko debateak eragiten dira.

Lan egiteko modu horrek laguntzen digu ikasgelan beste modu batzuetara mugitzen, parte hartzeko modu horizontalak dinamizatuz, *klasea* «ezagutzaren hartzaileen masa» izateari utzi eta bizikidetzaharremanak sustatzeko ikasleen artean, autogestiorantz eta ingurune unibertsitarioko boterearen aurrean erresistentziak proposatuz. Edukiak lantzen dira, noski, baina aldi berean eduki horiek aitzakia dira jabe-gabetzearen edukiak gure eguneroko bizitzan lantzeko, etxean, lagunekin, auzoan, klasetan...

Adibide gisa, hona hainbat debatetan sortu diren zenbait ideia:

- **Alaitasuna vs. Zoriontasuna:** Kontzeptu hauek ulertzeko eta interpretatzeko ikuspegi desberdinak sortzen direnez, disentsu handia dago. Antzematen da alaitasuna bat-bateko zerbait dela, efimeroa eta partekatzen erraza, eta klasean berez alaitasun une asko bizi ditugu elkarrekin; askotan, alaitasun partekatu hori norbaiti gertatu zaion zerbaiti lotua egon da eta modu kolektiboan bizi izan da (esaterako, autoa gidatzeko baimena lortzeko azterketa gainditzea). Baina gehienetan, alaitasun une horiek askoz egunerokoagoak izan dira, txikiak, ia hautemanezinak eta inkontzienteak. Oso bestelakoa da Zoriontasuna: helburuak lortzeari lotuta ikusten dugu, eta hori harreman-moduen aurkaria izan daiteke, norberaren helburuak bizipen kolektiboen aurretik jartzen direnean gatazkak sor daitezkeelako. Iruditzen zaigu Zoriontasuna IZATEA dela, perfekzioa, helmuga bat bizitzan, eta horrek askotan autoestimuari min ematen diola, lorpenak hain garrantzitsuak direnean arrakasta/porrota dualtasunean

mugiarazten gaituztelako, eta gainerako jendearengandik isolatzeke arriskuan jartzen gara.

- **Konfianza, alaitasuna eta askatasuna:** Askotan alaitasuna Umorearen ikuskizunarekin lotzen dugu, besteren lepotik barre egitearekin; baina alaitasuna konfiantzarekin eta askatasunarekin lotzen dugunean, ulertzen dugu alaitasuna kutsatzen erraza dela eta enpatia abiarazten duela konfiantzazko harremanak sortzen hasteko. Askatasuna, testuinguru horretan, disentsuan topatzen joatea da, izan ere, adostasunak botere eta lidergo harremanetara garamatza (inposizioa eta aniztasunaren suntsipena), eta aldiz, konfiantzazko harremanek laguntzen digute gure iritzia adierazten eta sormenez eta modu eraikitzailean partekatzen. Iruditu zaigu hiru zutabe hauek elkarren artean sakonki eta estuki lotuta daudela.
- **Askatasuna, zaintzak eta konfiantza vs. segurtasuna:** Dezen-te hitz egin dugu familia-harremanen inguruan, eta konfiantzazko harremana dirudiena gerta liteke segurtasun harremana izatea. Amarekin nire alaba roletik erlazionatzen banaiz, eta bera bere ama roletik nirekin, oso zaila da konfiantzazko harremanak eraikitzea, roletik ari bainaiz hizketan eta ez pertsonaz pertsona. Hala, uste dugu askotan familia-harremanak segurtasunekoak direla eta ez konfiantzazkoak: badakigu ez digutela huts egingo gure gurasoak direlako, edo behartuta sentitzen gara harreman kaltegarri bati eusteko soilik senideak direlako. Testuinguru horretan, zaintzak bertikalak lirateke (gurasoengandik seme-alabenganantz), botere-harremanetan oinarrituak, ez dira askatasunean oinarritzen, eta horrek eragiten digu hutsik egoteko sententzia gure gurasoek «dena ematen digutenean».
- **Desazkundera elkar zaintzeko modu gisa:** Garatu dugun beste hausnarketa garrantzizko bat lotuta dago besteekin ditugun harremanetan baliabide materialak erabiltzearekin.

Askotan, lagunekin kontsumitzeko geratzen gara, eta horrek pentsaraz diezaguke kontsumitzea bera dela helburua (zine-mara joatea, jatetxe batean afaltzea, tabernaz taberna ibiltzea, kirol-proba batean izena ematea...). Gure harremanak giza-beharrekin lotzen baditugu, aldiz, nahasten gaituen gastu handi batetik askatzen gara. Alegia, kontua ez da gutxiago gastatzea diru gutxiago duten lagunak ez alboratzeko (hori ere bai), baizik eta kontsumoak arrastaka eraman ez gaitzan eta baliabide materialekin dugun erlazioa giza-harremanetan kokatzea: hobeto bizitzea jendearekin eta jendearengandik, kontsumorako produktuak bigarren mailan utzita eta elkar zaintzeari eta ingurumena zaintzeari lehentasuna emanaz. Hortik aurrera, planteatu dezakegu zein inplikazio dituen gure beharrak asetzeko hautatzen dugun modu bakoitzak, eta ohartuko gara publizitateak eta bestelako marketing estrategiek produktu garestiagoak eta kalitate eskasagoak erostera bultzatzen gaituztela, beste produktu ezezagun baina merkago batzuek modu berean ase gaitzaketanak eta gainera errespetuzkoagoak direnak eta etikoagoak. Hortik, bestelako ekonomien inguruko debatera iritsi gara (ekonomia alternatibo eta solidarioak, ekonomia herrikoiak, ekonomia sozialak...), banaketa eta ekoizpen prozesuak aztertuz, elikagaien industriak bereziki, dituzten praktika txarrak azaleratu eta lekuko ekonomiak zaintzearen garrantzia azpimarratuz, hauek baitira ingurune sozial eta naturalarekin harmonian bizi direnak.

- **Eraikitze kolektiboa eta autonomia eta elkarren beharra:** Bizutabe hauek klaseen garapenaren ardatz dira. Egiten dugun guztia norbanakotik abiatzen da, norberaren jakintza pertsonal eta kulturaletatik, eta gainerako jakintza eta ezagutzekin elkarlotzen doaz prozesuan zehar, berreraikitzen eta birsortzen, desberdintasunak errespetatuz. Hau konplexu samarra

da, ze ez dugu elkar ezagutzen eta hasieran ez dugu konfiantzarik sentitzen gure ideiak adierazteko, edo ez zaizkigu baliagarriak edo garrantzitsuak iruditzen. Elkarrizketa hori zabaltzen doan heinean, konturatzen gara pentsatzen duguna esan dezakegula, inork ez digula burlarik egingo «txorakeriak» direlakoan, eta askotan, garrantzi gabekoak diruditen gauzetatik ideia, proiektu edo ekintza konplexuak eraikitzen doazela. Eskolak ezagutza zientifikoak beste jakintza guztien gainetik kokatu ditu, eta irakasgai honetan aldarrikatzen dugu gure inguruneko eta geure jakintzak, aniztasun horretatik elkarlotzen direla ezagutza zientifikoekin, dakigunarekiko autoestimua berreskuratzeko.

- **Helbururik gabeko itxaropena:** Itxaropenaren inguruan eztabaidatzen ari ginelarik, pentsatu genuen galdera hau botatzea: *prest egongo zinateke zure klaseko lana alde batera uzteko, suspenditzeko arriskua izanda ere, beste pertsona batzuei euren klaseko lanetan laguntzeko?* Eskola-sisteman eta bere arauetan hain murgilduta gaudenez, ezin dugu irudikatu ere egin hori posible izan daitekeela, eta gaitzetea edo kalifikazio ona lortzea elkarren arteko laguntzaren gainetik jartzen dugu. Baina hori apurtzen badugu eta elkarri laguntzen bagoaz, beharbada denok lortzen ditugu kalifikazio hobeak, denok elkarri laguntzen diogulako askotariko moduetan, gure sormena, gure trebetasunak, gure jakintzak... partekatzen ditugulako eta beste batzuekin elkarlotzen. Horrela ulertu dugu helbururik gabeko itxaropena: ideia edo sentsazio zehazgabe bat da, harreman-moduak lehenesten baditugu ikasgela bizikidetza-gune bilaka daitekeela, garapen akademikoaren gainetik, eta itxaropen horrek mugiaraz gaitzakeela konfiantzako harremanak eraikitzen, askatasunean. Askatasuneko giroa elkarkidetzan eta konfiantzan eraikitzen bagoaz,

gainera, kolektiboki eraikiko duguna aberatsagoa izango da eta gehiago ikasiko dugu!

Hausnarketa hauek egiteekin eta sentitzeekin batera landu ditugu. Geure familiaz, dirua nola erabiltzen dugun, nola garraiatzen garen, nola erlazionatzen garen jendearekin... hitz egitera animatzeak konfiantza giroan sentitzea eragiten du, eta horrek, aldi berean, askatasuna zabaltzen du. Ikasgela malgutzen da eta lurralde bat izatetik espazio-itxura hartzen du zenbait unetan, jendea sartu eta irten egiten da, kalera doa, zerbait grabatzen du, papera mural modura jartzen du pasiloko horman edonork gauzak marrazteko edo idazteko, talde batetik bestera mugitzen da laguntzeko edo zertan ari diren jakiteko, norbaitek musika jartzen du letra denon artean komentatu eta elkarrekin disfrutatzeke, ikasgela malguagoak bilatzen ditugu (psikomotrizitate gela, kasu) beste modu batzuetara esertzeko, edo etzanda jartzeko, eta horrela beste modu batzuetara ikusten dugu elkar, eta beste jarrera batzuetatik hitz egiten dugu...

Simulakroa hirugarren mailan: Jendearekin eta jendearengandik lan egitean izandako bizipenak

Irakasgai honetan, simulakro modura, partaidetza prozesuak eta eraikitze kolektiboa aktibatzea proposatzen dugu hizkuntza eta komunikazioa zer den sakontzeko aitzakiaren bidez, esperientziatuz ikasteko. Zehatzetik abiatzen gara, egin nahi dugun horretatik, eta hortik aurrera, proiektuak elkarlotzen goaz gure harreman-moduetan sakontzeko, bitartekaritza sozial desiratu-etarantz. Ideia honekin hasten gara: *irakasgai honen denboran, egin nahi duguna egingo dugu, eta egite horietan, partaidetza, elkarkidetza eta eraikitze kolektiboa probokatzen joango gara.*

Ilusionismo sozialaren printzipioetatik abiatzen gara printzipio etiko eta lan egiteko modu gisa, pentsatzea, sentitzea eta egitea

elkartuz bizi ahal izateko. Printzipioak dira, abiapuntuak (eta ez metodologia bat), nonbaitetik hasi behar dugulako, kontua ez delako «edozein gauza» egitea, edo proiektuak edonola garatzea, edo proiektuaren emaitzak jendearen gainetik egotea; egin nahi dugun horretatik abiatuta, topatzen goaz eta elkarlotzen, prozesuan zehar. Honela ulertzen ditugu ilusionismo sozialaren printzipioak:

- Hasierako negoziazioa, helburuak *a priori* finkatu gabe. Proiektuak proposatzen dira eta klasean eztabaidatzen dira bideragarritasuna, problematika, sakontasuna... aztertzeko.
- Objektutik subjektura: jendearekin eta jendearengandik lan egiten dugu, eta ez jendearentzat/jendearengandik. Printzipio honek laguntzen digu ideia asko alde batera uzten, ikuskizunaren gizartea edo ikuspegi asistentzialista sustatzen dutenean.
- Subjektu indibidualetik subjektu kolektiborantz, ideiak, proiektuak, taldeak eta jendea elkarlotuz ahal den guztietan.
- Konplexutasunetik/ean lan eginez, pentsatzea, sentitzea eta egitea harreman dialektikoan planteatuz.
- Ebatzi nahi diren arazoetara egokitutako tresnak eta teknikak erabiltzea, eta horretarako gure sormen eta sentsibiltate guztiz egin behar dugu lan, aniztasunez lan egiteko.
- Kultura herrikoiak sormen eta inspirazio iturritzat hartuz beren egiteko moduetan eta orokorrean bizitzeko moduetan; errepikapen sortzailearen bidez iragana jasotzen da orainaldira ekarri eta etorkizunerantz proiektatzeko, iragana ez baita gorde beharreko altxor bat, baizik eta egunerokotasunaren transzendentzia, konplexutasuna inperfekzioan eta osagabetasunean eraikiz.
- Dimentsio anitzeko komunikazio erduetan oinarritzen gara jendearekin komunikatzeko espazio eta denboretan, deialdi

bidez egiteaz gain; eta komunikazio moduak baliagarriak zaizkigu hizkuntzen irakaskuntzaren ikuspegitik ahozkotasunaren garapenaren aniztasuna biziz esperimendatzeko.

- Helburuak prozesuan zehar definitzen eta birdefinitzen dira, egoeraren arabera beharrak asetzeko sortzen diren aukerak baliatuz.

Proiektu hauen garapenean, ikasleek eztabaidatu dute, negoziatu, hausnartu, idatzizko testuak elkarrekin sortu, berriketan aritu dira, ondo pasa dute, dibertitu dira... eta gainera, beharraren arabera, beste eremu batzuetako irakasleekin ere hitz egin dute (Gorputz Hezkuntza, Plastika, Musika, Natur Zientziak, Gizarte Zientziak...), kafetegiko langileekin, administrazioko langileekin, atezainekin, kopistegikoekin... Komunikazioa benetakoa izan da eta anitza: diziplinak integratzeaz gain, komunikazioa bera aberatsa izan da, hizkuntza, adierazpen plastiko eta musikala, soinuak, mugimendua, testuala... gizakiok komunikatzeko ditugun askotariko baliabideak askotariko moduetan erabiliz. Prozesu osoan zehar, debate eta eztabaidek lagundu digute proiektuei sakontasuna emateko eta batez ere harremanak ehuntzeko, bai taldearen barruan eta bai gure inguruan. Kontraesanak, blokeoak, frustrazioak, azpiegitura problemak eta bestelakoak izan ditugu, baina arazoak gainditzen joan gara ikuspegi kolektiboari eta elkarren arteko laguntzari esker. Ez dugu «irabaztea» bilatu, zenbaitetan ez ditugu gure nahiak bete, baina beti ikasi dugu gure artean hobeto komunikatzen eta gatazkak estrategia desberdin askoren bidez lantzen.

Prozesu osoan politena izan da egiten ari ginenaren ilusioak alaitasunez lan egitea eragin digula eta askatasun sentazioz, askotan ahaztu egin zaigu gure artean botere-harremanak zuek dela (kalifikazioen botere koertzitiboa adibidez), hala ere, hau ezkutatu behar ez den gauza garrantzitsua da, bestela ikasleak

egoera ahulean gera daitezke, beren alde zaugarriak erakusten dituztelako; horregatik azpimarratu behar dugu beste behin prozesu osoaren etikotasunaren ezinbestekotasuna.

2014/2015 ikasturtean bi proiektu hauek garatu ziren, besteak beste:

- Magisteritza Eskola dekoratzea, harremanetarako eta lanerako leku atsegina izan zedin. Ideia horretatik sortu zen *@decomagis* deitu zen ekimena, Eskolan mugimendu bat bilakatu zena. Dekorazioa aldaketak aldarrikatzeko eta proposamenak adierazteko tresna bihurtu zen, lan-taldea etengabe irekiz edozein pertsonak edozein unetan parte hartu ahal izateko, proposamenak entzunez, jendearekin kolaboratuz eta irudimen handi-handiz lan eginez. *Ate bat eskatu zeniguten lorategian sartzeko. Guri atea zabalik gustatzen zaizkigu! Entzun gaitzatela!!!*
- Gymkana bat antolatzea eraikinaren kanpoaldean, edonork parte har dezan. Antolaketa honetan, proposatu zuen lantaldeak utzi egin zien beste kide eta taldeei lagun ziezaieten, zituzten zailtasunak gainditzeko; hasieran uste zuten ez zela egokia besteen laguntza jasotzea, baina berehala konturatu ziren kolektiboki lan egitea aberasgarriagoa dela proiektuaren arrakasta bera baino, eta amaieran festa txiki bat eskaini zieten klasekide guztiei, laguntzagatik eskerrak emateko.

Bi proiektu hauek, elkarri laguntzeko garatu zituzten moduengatik, izotzaldia urtu zuten eta *@decomagis* proiektuak proposatu zuen bezala, hainbat ate zabaltzea lortu zuten eta ikastetxea nolabait astindu zuten. Lehen eta laugarren mailako ikasleak animatu zituzten euren proiektuak eta ideiak ere proposatzera, eta eurenekin josi zituzten. Transzendentziaren nolabaiteko kutsuaz, proiektu hauek erraztu dute espero ez ziren gauza ugari

gertatzea, eta halaber, 2015/2016 ikasturtean xumeagoa izatea ezinezkoaren itzaropena lantzea.

2015/2016an gauzatutako proiektuak horrenbeste elkarlotu direnez, oso zaila da prozesua deskribatzea. Aurreko urtean atearak zabalik gustatzen zitzaizkiela aldarrikatu bazuten, oraingoan lurraldeetako harresiak apurtu nahi izan zituzten. Hari nagusia izan da nola ikusten ditugun Eskolako espazioak, nola mugi gaitzkeen bertan geure buruari ezartzen dizkiogun mugak gaintuz. Ez zen izan talde zehatz bat hori proposatu zuena, eztabaidetatik behin eta berriz sortutako gai bat izan zen. *Zergatik mugitzen gara roboten moduan eskolan eta ez zaigu bururatu ere egiten espazioak beste modu batera erabiltzea?*

Eztabaida horiek beste hausnarketa batera eramán gintuzten: *HILDA GAUDE*. Lelo hau hartu zuen aldizkari bat sortzea proposatu zuen taldeak, izan ere, orokorrean sentitzen dute euren iritziak ez direla aitzat hartzen, beren ahotsak ez dituela inork entzuten, beti irakasleek agindutako zereginetara makurtuta komunikatzen direlako, edo autoreen, irakasleen, ikertzaileen, erakundeen... hitzetara. Eskolako espazioen inguruan egindako hausnarketak hilda gaudelako baieztapenarekin gurutzatuz, proposamena izan zen *picnic* moduko bat egitea, modu erdi-inprobisatuan, *hilda gaudel/bizirik gaude* planteatzeko probokazio modura, posible denaren segurtasunetik ezinezkoaren itzaropenarantz mugitu nahian.

Picnic honetan *Desioak eskitzeko sokaren*² egokitzapen bat erabili genuen, eta hezkuntzari, eskolari eta inguruneari buruzko gure ideiak paperezko zapietan idatzi genituen, sokan zintzilikatzeke. Eskolako sarrerako lurrean mahai-zapiak jarri genituen, eta bertan jateko gauzatxoak utzi genituen. Batzuk lurrean eseri-

2 Sakontzeko, ikus. Javier ENCINA, M^a Ángeles ÁVILA eta beste (2011).

ta eta beste batzuk zutik, gauzak idazten ari ginelarik, inguruan zebilen jendearekin hasi ginen hizketan, kezkatzen gintuzten gaien inguruan. Ondoren, norbait iritsi zen gitarra bat eskuan eta jotzen hasi zenean, berehala hasi zen jendea kantatzen, eta jende gehiago hurbiltzen, gero eta jende gehiago, eta jendea besarkatzen hasi zen, kantatzen, agurtzen, argazkiak ateratzen... Alaitasun handia bizi zen tartetxo hartan, eta oso konpartitua izan zen, zenbait irakasle ere hurbildu zen ikasleekin batera kantatzera, lurrean eserita, edo esan ziguten lehen aldia zela ikasleak hain alai ikusten zituztela, edo polita zela eskolan jendea euskaraz kantatzen entzutea... Egia da kexa batzuk egon zirela zaratagatik, ordena asaldatzeagatik, baina horrek ez zuen galarazi une berezi hori, bat-batean sortu zen une hori, elkarrekin gozatzea.

Horrek irakatsi zigun ez zela beharrezkoa planifikatzea, ezta dena aurrez zehaztuta izatea ere, eta gauzak gerta daitezen uzteak oso momentu iragankor eta errepikaezinak eragin ditzakeela. Une hartatik aurrera, bat-batean ez genuen beldurrik gauzak guztiz kontrolatuta izan gabe egitera, eta horrela, errazagoa izan zen gure ideiak gauzatzea; besteak beste, *lib-dup* bat grabatzea Eskolako espazioen eta espazio horiek habitatzeko dituen jendearen inguruan (administrazio eta zerbitzuetako pertsonala, kopistegiko jendea, kafetegikoa... barne harturik, noski). Eta bukatzeko, festa ez-ofizial bat antolatu genuen eta jendea gonbidatu genuen jolasetan parte hartzera. Amaieran, bazkari autogestionatu bat egin genuen: bakoitzak nahi zuena ekarri zuen, batzuk taldeka antolatu ziren zenbait jan-edan ekartzeko, beste batzuek etxean zutena edo prestatu zutena ekarri zuten... eta dena denontzat izan zen. Elkarrekin abesten aritu ginen, solasean, lasai eta alaitasun handiz, eta izugarri disfrutatu genuen.

Prozesu osoaren amaieran, ebaluazio-modu anitzak erabili genituen: testu libreko autoebaluazio indibiduala, taldekako berrikusketa (egindako gauzek eta ikasitakoek gure irakasle lanbiderako nola lagun diezaguketzen hausnartzeko), eta prozesu osoan zehar giza-beharrak asetzeko erabili ditugun modu anitzen taula³.

Esperientzia hauek guztiak oso epe laburrean egiten ditugunez (bi hilabetetan, astean lau orduz), konturatu ginen jendea zenbait konturekin minduta edo ahulduta zegoela, edo zenbait zauri emozional zituela, sentipenak piztu genituelako, bai alaitasunez baina baita tristeziaz edo frustrazioaz ere. Gauzak pentsatu/sentitu/egiten direnean, sentsibiltate handiz aritu behar dugu, printzipio etikoak argi izanik, jendearen emozioak ez manipulatzeko eta bizikidetzara erakitzeke. Hori dela eta, pentsatu genuen jendeak «besarkada» bat behar zuela amaitzeko, eta burura etorri zitzaigun Eduardo GALEANOren *Besarkaden Liburuan* (1989) begiratzea, eta hara! guri gertatutako gauza batzuk zituen ipuinetan jarririk! Eta orduan, honela eman genion prozesu osoari amaiera, ebaluazio berezi hau eginez:

I. Hasiera: Beldurra, blokeoa eta ezjakintasuna

«Ez genekien zer egin. Beti egin izan dugu irakasgai bakoitzean eskatu digutena. Galduta geunden»

«Konturatu ginen ez genuela benetan elkar ezagutzen eta ez genekiela elkarrekin erlazionatzen»

«Bitan edo hirutan geratu ginen blokeatuta, ia ez da atera proiektua. Ez genekien lan egiten liderrik gabe edo erabakiak gure ordeztu hartuko dituen norbait ez dagoenean»

3 Ikus. giza-beharren azalpena liburu honetan bertan «Jendearekin eta jendearengandik parte hartzen. Sarrera berri bat» atalean.

Una mañana, nos regalaron un conejo de Indias. Llegó a casa enjaulado. Al mediodía, le abrí la puerta de la jaula.

Volví a casa al anochecer y lo encontré tal como lo había dejado: jaula adentro, pegado a los barrotes, temblando por susto de la libertad. «El miedo» Eduardo GALEANO (1989:84).

II. *Prozesua: Topaketa ospatzen*

«Festak asko lagundu zigun, elkarrekin geunden, korrika, abesten eta barrez, beste maila batzuetako ikasleekin ere bai, eta nonbait geundela sentitzen hasi ginen»

«*Pic-GUKa* egin genuenean (ez genion *picnik* deitu nahi, jendearekin topatu nahi genuelako, horregatik *nik* horren ordezt *GUK* jarri genion) erakutsi nahi genuen ez geundela hilda, Eskolan bizirik geundela, eta ilusio handia egin zigun une hartan bizirik sentitu zen jende gehiagorekin topatzeak»

«Egia esan, jan-edanak partekatzeak asko laguntzen du lasai sentitzen eta espazio eta denbora jakin batean gaudela sentitzen, lurralde eta ordutegi batean harrapatuta egon beharrean»

«Klasekideekin gauza asko egin ditut aurreko bi urteetan egin ez nituenak: barre pilo bat egin, jolastu, disfrutatu, gauza nahiko sakonei buruz hausnartu, jendea modu ez akademikoan ezagutu... jendea ezagutu dut»

Estaba suave el sol, el aire limpio y el cielo sin nubes. Hundida en la arena, humeaba la olla de barro. En el camino de la mar a la boca, los camarones pasaban por las manos de Zé Fernando, maestro de ceremonias, que los bañaba en agua bendita de sal y cebollas y ajo.

Había buen vino. Sentados en rueda, los amigos compartíamos el vino y los camarones y la mar que se abría, libre y luminosa, a nuestros pies.

Mientras ocurría, esa alegría estaba siendo ya recordada por la memoria y soñada por el sueño. Ella no iba a terminarse nunca, y nosotros tampoco, porque somos todos mortales hasta el primer beso y el segundo vaso, y eso lo sabe cualquiera, por poco que sepa. «La Fiesta» Eduardo GALEANO (1989:208).

III. *Amaiera: Ebaluazioa*

«Bazegoen jendea ez zuena parte hartzen ia, zain zegoena ea besteok zer proposatzen genuen edo zer erabakitzen genuen, erabakitakoa egiten jartzeko eta kitto. Horrek amorrua eman zigun, frustrantea zen... Baina azkenean jende guztiak hartu zuen parte, modu batera edo bestera, batzuk aktiboagoak eta inplikatuagoak, eta beste batzuek beren aletxoa eskaini zuten une jakin batzuetan»

«Niri asko kostatzen zait parte hartzea, ez naiz ausartzen, eta ahal nuen guztia egin ez badut ere, askatzen joan naiz eta konfiantza handiagoa hartu dut, neure buruarengan ere bai»

«Lehenago ere banekien arren, barneratu dut ni NEU naizela, ez dudala egon behar beti besteek esaten didatena egiten»

«Azkenean, jende guztiaren ideiak eta iritziak hartu dira kontuan, batzuetan nolabait gehituz eta beste batzuetan, lehenago zeudenekin edo beste pertsona batzuenekin elkarlotuz. Bakoitzak beragandik aportatu du eta horrek aberastasun handia eman digu»

Un hombre del pueblo de Neguá, en la costa de Colombia, pudo subir al alto cielo.

A la vuelta, contó. Dijo que había contemplado, desde allá arriba, la vida humana. Y dijo que somos un mar de fueguitos.

–El mundo es eso –reveló–. Un montón de gente, un mar de fueguitos.

*Cada persona brilla con luz propia entre todas las demás. No hay dos fuegos iguales. Hay fuegos grandes y fuegos chicos y fuegos de todos los colores. Hay gente de fuego sereno, que ni se entera del viento, y gente de fuego loco, que llena el aire de chispas. Algunos fuegos, fuegos bobos, no alumbran ni queman; pero otros arden la vida con tantas ganas que no se puede mirarlos sin parpadear, y quien se acerca, se enciende. «El Mundo»
Eduardo GALEANO (1989:5).*

Simulakroa laugarren mailan: Hezkuntza, teknologia eta hizkuntza hausnargai

Irakasgai honetan, asko hausnartu dugu hezkuntzaren inguruan. Deigarria da ikasketen amaieran, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle izateko trebatzen duten ikasketen amaieran, ikasleak ez izatea gai azaltzeko zein posizionamendu hartu nahi duten, nola egin nahi duten lan, zer egin nahi duten haurrekin klaseetan... Ikasleek erantzun hau errepikatu dute: *zuzendariak edo zuzendaritza taldeak esaten diguna egin beharko dugu, orduan, zertarako jarriko gara pentsatzen zer egin nahi dugun?* Debateetan zehar, onartu dugu irakasleen hasierako formazioaren parte handi bat gobernuaren aginduak nola bete ikastea dela: curriculumak, programazioak, unitate didaktikoak, ebaluazio-estandarrak... dena *a priori* erabaki dezagun zer egingo dugun beste pertsona batzuk hezteko, pertsona horiek ezagutu gabe, jendea gure esku-hartzearen objektu bihurtuta. Magisteritza ikasketetan denbora asko eskaintzen zaio egiteari (unitateak, programak, ariketak, txostenak...), oso gutxi pentsatzeari (hezitzaileak beste batzuek erabakitako planen exekutore huts direlakoan), eta ia ezer ere ez

sentitzeari (hierarkiari eutsi behar zaio, profesionalak gara!), eta antza denez, oso estrategia eraginkorra da bitartekaritza inposatu eta baimendutakoetan mantentzeko eta bitartekaritza sozial desiratuetatik urruntzeko.

Suposatzen da gure lanbidean irakasle-rola onartu behar dugula eta rol horretatik erlazionatu behar dugula ikasleekin. Baina ezin dira konfiantzazko harremanak eraiki roletik rolera, soilik pertsonatik pertsonara eraikitzen da konfiantza, izan ere, rola esan nahi du egiten ari garena «egitea dagokigulako» egiten dugula, horrek gidatzen gaitu eta gu gidatuak izaten uzten gara, gure gutasuna zatikatuz: *ni irakasle, ni adiskide, ni kontsumitzaile, ni seme/alaba, ni guraso...*

Horrela, bi eztabaida nagusi sakondu ditugu:

- Bitartekaritza sozial desiratuak eta teknologiaren zeregina bitartekaritza hauen eraikuntzan eta suntsipenean
- Gure lanbidearen dilema etikoak lana bilatzeari eta lan egiteko moduei lotuta

Teknologia irakaskuntzan erabiltzeari lotutako irakasgaia denez, IKTek gure harremanetan nola eragiten duten aztertu dugu, bai ikasgelaren barruan eta bai, batez ere, eguneroko bizitzan. Ez ditugu konponbideak edo erantzunak bilatu, baizik eta harreman-moduez, partaidetzaz eta komunikazioaz eztabaidatu dugu, lekuan lekuko eta unean uneko erabaki egokiak hartzen laguntzeko, kolektiboki autogestionatuak. Esate baterako, hainbat kidek planteatu dute egun osoa ematen dutela mobilean begiratzeko, behin eta berriz, baina pentsatzen jarrita, konturatu direla benetan mobilak ez diela ezer eman, alferrikakoa izan dela; baina hurrengo egunean, berriz ere mobila begiratzen jartzen direla, ezin direla mugikorrik gabe bizi. Kurioso da, mugikorrak hain bizitza laburra izanda nola bilakatu diren ezinbesteko,

mendetasunak eragiteko dituzten mekanismoen bitartez. Jesús MARTÍN-BARBEROk dioenez (2015:5), teknologiak bere estatua zeharo eraldatu du, “gizarte garaikideen *dimentsio estruktural* bilakatu dira, eta dentsitate sinboliko eta kulturalaz betetzen ari da, aldi berean”.

IKTek pertzepzioen aberastasuna murrizten dute, funtsean bi zentzumen besterik ez dituztelako sustatzen: ikusmena eta entzumena. Gainera, komunikazioa idatzizkorantz bultzatzen ari dira, eta teknologia sozialak direnez, harreman-moduak aldatu dituzte: harreman akademikoak, lanekoak, eta, okerrena dena, eremu pribatuko harremanak ere bai, oso denbora gutxian. Zerbait ikaslek aipatu zuten lagunartean mugikorraren erabilera arautzea erabaki zutela, adibidez afaria dutenean, mugikorrak saski batean uzten dituzte itzalita, arreta beregana dezaten eragozteko. Beste batzuek zioten ez zirela gai izan «mugikorrik gabeko eguna» betetzeko, jarduera asko dituztelako bertara loturik. Tresnak gure egunerokoa markatzen duenean, jendea ez da tresna erabiltzen duena, alderantziz baizik: tresnak jendea erabiltzen du. Egoera hori zalantzan jarri behar da, tresna bere lekura itzuli behar dugulako, Ivan ILLICHek (2015) proposatu zuen modura bizikidetzatresna izan dadin.

Zentzu horretan, berrikusi dugu zein giza-behar asetzen dituzten IKTek; kontua ez da, gure ustez, IKTak baztertzea, dagokien lekuan kokatzea baizik. Uste dugu IKTek oso erabilera interesgarriak dituztela, baina behar horiek asebetetzeko beste aukera guztien maila berean jarri behar dira, aniztasuna ez suntsitzeko.

Dilema etikoei dagokienez, tentsio dialektikoa sortu da enplegu-beharraren eta eskoletan lan egiteko moduen artean. Adibidez, gure eskolan forma pedagogiko negatiboak daudela jakinda, or-

daintzen digunarentzat lan egiten badugu, badakigu hurrei kalte egiten diegula gure lanarekin, eta hori gure etika profesionalaren kontrakoa da, ez ditugulako gure kargu dauden haurrak zaintzen eta babesten. Orduan, lan egiteko beste modu batzuk proposatu ditugu halako eskoletan lan egiteko, egiturak malgutzuz eta erresistentzia eta babes-moduak ezarriz. Ideia bat da ikusten dena eta ikustezina erabaki dezakegula, edo egiten duguna nola dokumentatuko dugun segun eta norentzat den: botere-egituran gure mailan daudenentzat (lankideak, irakasleak), gainera daudenentzat (zuzendaritza, ikuskaritza...) edo senitartekoentzat (familia-boterea).

Azkenik, perfekzioaz eta talde-kohesioaz eztabaidatu dugu, inperfekzioaren eta lan kolektiboaren aldean. Sortu diren proiektuetan, IKTen «erabilera perfektua» baztertu dugu (webgune polit bat, oso ondo landutako bideo bat, ondo egituratutako blog bat...), tresna hauen erabilera inperfektua eta arina sustatzeko, eta hori posizionamendu hezitzaileagatik egin dugu. «Proiektu onak» egiteak, hau da, indar guztia produktuan jarriz, modu kohesionatuan lan egitea eskatzen du, lan-talde bakoitza bere lanean entzerratzea, planifikatzea eta oso modu doituaren garatzea; nor bere zereginak izango ditu proiektuan, espezialista bihurtuko da. Horretarako isolatu egin behar du eta deshumanizatu, ez baitugu inguruan dugun jendea ikusten, hain gaude fokalizatuta gure proiektuaren edertasunean... Gainera, zailagoa da horrela beste talde bateko norbaitek laguntzea, edo taldeak fusionatzea, edo elkarrekin eraikitzea, espezialista izan gabe oso zaila delako maila ematea. Horrela, jendea (eta horien artean gure ikasleak, gu bezain trebeak eta onak ez diren ikasleak) behin eta berriz gure azpian kokatzen ditugu, gure trebetasunen azpian, gu perfektuak baikara.

Inperfekzioan berdintasunez topatzen gara, onartzen dugulako inork ez dakiela dena, eta horrela, modu iragazkorrean irekitzen gara, jende guztiak har dezake parte proiektu guztietan bere modura eta besteengandik ikasiz; elkarrekin gaudela sentituz.

Posible denaren segurtasunetik ezinezkoaren itxaropenera: Amets egin, esnatu, bizi

Edukomunikazio herrikoia posible denaren konfiantzaren eta ezinezkoaren itxaropenaren artean mugitzen da: ilusionismo soziala praktikan jartzea da, posible egiten duelako itxuraz ezinezkoa dena. Masa-komunikazioarekin erlazionatu behar du, eguneroko espazio eta denboretan, eta komunikazio menderatzailearen logikak alderantzizkotzea lagungarri zaio. Komunikazio herrikoietatik abiatuta lan egiten denean, urruntasuna eta identifikazioa aldi berean erabiltzen dira.

Eraikitze kolektiboko prozesuetan, edukomunikazioa ezin da inposatua izan, desiratua baizik, eta desio horrek prozesua noberegantzea izan behar du bere baitan. Javier ENCINA eta M^a Ángeles ÁVILA (2010).

Posible denaren segurtasunean lan egiten badugu, jendearen gaintetik pasatzen gara bere erritmoa erabakitzen dugulako, aurrez ezarritako eduki eta helburuetan zentratuz; berdin digu norekin gauden, beti gauza bera egingo dugu. Aniztasuna gure jarduerak gauzatzeko traba bat da. Segurua arautua dago, ezaguna dugu, klasera goazenean badakigu zer egingo dugun. Segurua da eragiten duena urte asko pasata ere eskolan denak berdin jarraitzea, *status quo*-ari eustea. Ezagutzen dugunaren barruan mugitzen gara, txantiloiak modu errepikatzailean errepikatuz.

Eskola menderatzailea oso modernoa edo berritzailea izanda ere, despertsonalizazioa, homogeneizazioa eta deshumanizazioa eragiten jarraitzen du, *a priori* finkatzen duelako zer gertatuko den

(programazioak, unitateak, sekuentziak...). Ametsak azpimarratzen dira, baina amets egiten badugu, lo gauden seinale. Eskola menderatzaileak bizien artean ez gaudelako sentsazioa eragiten digu, *zombi* sentitzen gara, edo robot, edo posible denaren segurtasuna amesten dugun lotiak, orain irudika dezakeguna baino ez dugu amets egiten.

Ezinezkoaren itxaropenak gure zentzumen guztiak esnatzen ditu (13 zentzumenak), eta irudimen berriak eragiten dizkigu pentsatu/sentitu/egiteetatik lan eginez, banandu gabe. Besteekin topatzen goazenez, ezustekora irekitzen gara, eguneroko espazio eta denboretan. Ez du denak balio, baina ikasgelako pertsona batek (irakasleak) erabakitzen duena soilik kontuan hartzeak ere ez du balio. Pertsona guztiak subjektutzat onartzen ditugu, eta irakasle garenez, gure lana da dinamizatzea jendea banakako subjektutzat eta subjektu kolektibotzat onartua izan dadin. Ikerketa ez da banantzen eta prozesuaren parte da, ikerketa partehartzailea eta eraldatzailea.

Esnatzeko sentsazioak ez du esan nahi une horretatik aurrera beti esna egongo garela; simulakroak direnez, aukera berri bat sortzen dugu. Halako esperientzien amaieran, ematen du dena bere lekura itzultzen dela, denak lehen bezala jarraitzeko; berriz ere lokartzen gara. Baina iragankorra baloratuz, gertatutakoa ukatuta ere (ez dugulako onartu nahi gauza gehiago egiten ez baditugu ez dugulako nahi dela...), badakigu zer gertatu den, nola gertatu den eta nola sentitu garen jendearekin. Bizitakoa oso zaila da ezabatzen, eta dena bere lekuan dagoela dirudien arren, itxaropenaren hazia ernamuindu da.

Bibliografía

Pierre BOURDIEU (1985) ¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos. Ed. Akal/Universitaria. Madrid.

Javier ENCINA eta M. Ángeles ÁVILA (2015) El Desempoderamiento. Colectivo de Ilusionistas Sociales eta Ilusionista Sozialen Mintegia. Sevilla/Donostia.

----- (2010) *El ilusionismo social: más allá de la última frontera metodológica*. Javier ENCINA, M^a Ángeles ÁVILA, Begoña LOURENÇO, Las culturas populares: plantas medicinales, comunicación, economía, historias orales e ilusionismo social. Colectivo de Ilusionistas Sociales. Sevilla.

Javier ENCINA, M^a Ángeles ÁVILA eta beste (2011) Participando con y desde la gente. UNILCO-espacio nómada. Sevilla.

Ainhoa EZEIZA eta Javier ENCINA (2017) *Desempoderamiento científico*. Javier ENCINA eta Ainhoa EZEIZA (koord.) SIN PODER. Construyendo colectivamente la autogestión de la vida cotidiana, 183-235. Editorial Volapük. Guadalajara (España).

Eduardo GALEANO (1989) El Libro de los Abrazos. Ediciones La Cueva. Buenos Aires.

Rocío GÓMEZ ZÚÑIGA eta J. GONZÁLEZ MINA (2003) *(des)ordenar lo vivido, reordenar lo sabido: déficit simbólico y juegos-simulacro*. III Simposio Nacional de Investigación y Formación en Recreación. Vicepresidencia de la República/Coldeportes/FUNLIBRE Azaroaren 27tik 29ra. Bucaramanga. Kolonbia.

Ivan ILLICH (2015) *La Convivencialidad (textos seleccionados)*. Javier ENCINA eta Ainhoa EZEIZA (koord.) Convivencialidad, Tecnología y Desempoderamiento, 75-118. Colectivo de

Ilusionistas Sociales, Ilusionista Sozialen Mintegia. Sevilla/Donostia.

Jesús MARTÍN-BARBERO (2015) *Cuando la tecnología deja de ser una ayuda didáctica para convertirse en mediación cultural*. Javier ENCINA eta Ainhoa EZEIZA (koord.) Convivialidad, Tecnología y Desempoderamiento, 5-19. Colectivo de Ilusionistas Sociales, Ilusionista Sozialen Mintegia. Sevilla/Donostia.